





MATRIKULAZIOA: Urtarrilak 27-Otsailak 7



Greba Deialdia dela eta

Datorren ostegunerako, **hilak 30**, egun osoko greba deialdia egin du Euskal Herriko Eskubide Sozialen aldeko Mugimenduak. Zurriola Ikastolako langile irakasleek eta langile ez-irakasleek deialdiari agerturiko abikimendua dela medio, egun horretan **ez da eskola lektiborik izango, ez eta inolako zerbitzurik eskainiko** (goizeko zaintza, jantokia, otorduen garaiko zaintza, garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.). Beraz, **Ikastola osoko zerbitzu minimoak**, baita Soroa, Josefinak eta Karmelokoak ere, **Hurrako egoitzan eskainiko dira**.



Kaldereroak badatoz!

Datorren ostiralean, urtarrilak 31, Kaldereroen konpartsa kaleratuko du ikastolak. **HH2-3ko** eta **HH4-LH6ko** ohar hauetan informazioa irakur dezakezue. Horretaz gain gogoratu, alde batetik, gurasoen laguntza oso estimagarria dela HH eta LHko ikasleak ikastolan bertan jantzi ahal izateko eta, bestaldetik, eguraldiaren iragarpena dela eta oharrean adierazitako egitaraua aldatu beharko bagenu, datorren asteazkenean jakinaraziko zaizuela webgunearen bitartez.



DBH1ekoak Okendon

Duela egun batzuk DBH1ekoak Okendo Kultur Etxean izan ziren. Ikastolatik gertu dagoela aprobetxatuz, bertako arduradunek kultur etxeak eskaintzen dituen aukeren berri eman zieten, hala ikasleak euren aisialdian etekina atera diezaioketen beste baliabide bat ezagutu zuten.



2020/21 MATRIKULAZIO EPEA ZABALIKI!
HH, LH ETA DBH

Urtarrilaren 27an matricula ofiziala egiteko epea irekiko da. Informazio gehiago [bertan](#).

Sansebastianetako oroitzapenek bizirik diraute oraindik. Horren lekuko Joxemari Artolaren bideo eder hau duzue.

OHARRAK / AGENDA:

- **HH2-3:** Kaldereroak. [Soroa](#).
- **HH4-LH6:** Kaldereroak. [Gros/Manteo](#).
- **LH3:** Ingeleseko antzerkiak. Urtarrilak 27, A taldea (15:10ean) eta B taldea (16:00etan). Urtarrilak 28, C taldea (16:00etan). Hurrako antzerki aretoan.
- **LH4:** Ordiziara irteera. Ilbeltzak 29. Egun pasa. [Zirkularra](#).
- **Eskola Kirola:** 10. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- **Musika eta Dantza Eskola:** Urteko Batzarra. Otsailak 4. [Deialdia](#).
- **Kirol Elkarteak:** Urteko Batzarra. Otsailak 14. [Zirkularra](#).
- **Antzerki Eskola:** Urteko Batzarra. Otsailak 17.
- **Lur eta Amets - Filma:** [Informazioa](#). Ikuskizun bira [Donostian](#) urtarrilaren 29an.



ikastola
 etorkizunerantz
 hezkuntza
 eraldatzen

